



TOPAGUNEA. Hedabide Saila.  
Arlozabal 8 bis, 1. C. 48220 Abadiño  
94 681 48 21 – 616 11 87 95  
[aldizkariak@topagunea.org](mailto:aldizkariak@topagunea.org)  
[www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)

---

## **Babesa jaso du Topaguneak Gipuzkoako Batzar Nagusietan egindako agerraldian**

**DONOSTIA, 2009/06/01.-** Agerraldia egin du Topagunea Euskara Elkarten Federazioak Gipuzkoako Batzar Nagusietako Kultura eta Euskara Batzordean. Gipuzkoako Foru Aldundiak Topagunearen sustapen lana eta Kultur Errota egitasmoa babesteko urteetan izandako lankidetzaz hitzarmenaren etenaren inguruko agerraldian Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak, Iker Martinez de Lagos idazkariak eta Maite Agirre AED elkarteko kideak parte hartu dute. Otsailaz geroztik Topaguneak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Diputatuarekin izandako harremanaren berri eman dute federazioko kideek, baita egoerari aterabidea emateko Foru Aldundiko ordezkariak luzatu zaien eskariaren berri ere.

Batzordean ordezkariak duten talde guztien babes zabala jaso du federazioak eta bere jarduerak agerraldian. Era berean, Foru Aldundiaren eta Euskara Elkarten Federazioaren elkarlana egonkortzearen garrantzia eta beharra azpimarratu dute talde guztiek.

Topagunea Euskara Elkarten Federazioa 1997an sortu zen, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 93 Euskara Elkarteak osatzen dute. Elkarteon zein Federazioaren beraren helburua euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, hainbat esparru lantzen dituzte, hala nola haur eta gazteen aisialdia, kulturgintza, tokiko hedabideak, mintzapraktika, entitateak euskalduntzea eta sentiberatzea.